

GIPUZKOA'KO ABERE BASATYAK

BASOZ beteak ziradenean Gipuzkoa'ko mendiyak, lar-abereak, txiki ta aundi, ugari arkitzen ziraden toki beretan. Azari, basakatu, erbiñude edo pirotx, katagorri, katarde, triku edo kikiriyo, mušar, erbi akuri, sator, untxarta edo udoa, azkonar, basauntz, oreñ, basurde, otso, ta bestelako batzubek ugari izaten ziradela gure mendiyetan guziyok dakigu alabaña, gure egunetan ere gutxi edo geigo ikusi ta eizatu oi ditugulako.

Askok ez dakitena da ordea artx, katamotz eta legoinabarrak deritzayotegun pizki izugarriyak ere baziradela Gipuzkoa'ko baso aundiye-tan, berealašen sinistaraziko dedanez.

Artzak gutxi bañon geyago izaten ziran gure baso ta lekaruetan (eremuetan) lenagoko aldi (denbora) zarretan. Dakiguna da anei (milla) bosteun ta irurogeita emeretzi-garren urtetik, anei seireun boskarren urtera (1579-1605), edota ogeita sei urteen barruban emeretzi artz gogorri biziya kendu zitzatela Aralar eta Enirio mendiyetan, au da, Ordizia (Billafranka), Arama, Legorreta, Ataun, Beasain, Zaldibi, Amezketa, Orendain, Ikaztegieta ta beste toki ingurubetan.

Baitaere-euskaldun trebe Txomiñ Arratibel zeritzayonak artz aundi bat eta artzakume bi eizatu zituban Ataun'go erriyan anei seireun ta boskarren urtean (1605-an).

Gañera ¡gauz-arrigarriya! Ordizia'ren ate-ateetan artzakume batzubek atzitu ziraden amaseigarren euntearen lenengo erdiyan, Itxaso erriko Batzar-etxean dauden agiriyetako batean irakurtzen danez. Ez ordea etzituzten orrela artzakumeak atzituko erri baten sarreran, mendi ta lekaruetan ugari samar izan ez baziraden artzak.

Anei zazpireun ta ogeita amaboskarren (1735) urte inguruban ber-
rizar Zaldibi'ko eiztari bik artz aundi bat eraill zuten elurte batean Ara-
lar'ko mendiyen. Iztueta jaun kondairatzalle gipuzkoarrak diyo artza-
ren larrubari kendu ziyozkaten aragi ta ezurak amazapi erralde ta lau
aztaga (libra) pisatu omen zituztela; ta artz aundi onen larru oso-oso
bere mustur, belarri, beso, anka, atzapar, atzeki ta guzti ber-berak iku-
si zubala askotan Balmediano markes jaunaren jauregiko eskaratzean
zinzilika zegoala.

Geroanean, au da, anei zortzireun irurogeita zazpigarren (1867^{en})
urteko Uztailla'ren laubean Anzuola'ko lurretan amalau arrobaka beste
artz aundi bat eizatu zuten euskaldun bulardetsu batzubek; eta erama-
ten zutelarik oyek Oñati'ko Batzar Aundiyetara, bi anei (milla) erreal
eman zitzaizten saritzat.

Azkenik ogeita amabost bat urte dirade Albiztur'tik Tolosa'ra bi-
dean ijito batzubek topatu nitubala artzakume bi salgai asto gañean
zeramazkitela, ta ziyoten Elgeta'ko mendi, Aitzorrotz'en arkitu zituzte-
la. Artzakume ayen ama ere urruti-urruti gabe izango baizan.

Katamotzak (tigreak), pizti odolzaleak, baziradela lenago Gipuz-
koa'ko basoetan aloterik (dudarik) ez dago. ¡Ain toki bakar eta isille-
tan izango etziraden bada, ta ainbeste basakatu zebiltzanetan! Katamotz
eta basakatubak, izen ta guzi, enda (arraza) batekoak baidira. Dakiguna
da anei seireun ta seigarren (1606^{en}) urtean Munduate'tar Pedro eiz-
tariyak zunpa (tiro) bakar ta zuzenez katamotza ill zubala Ataun'go
mendi Agaunza'n.

Baitaere badakigu Idiazabal'go arzayak anei zazpireun ta irurogeita
amaseigarren (1776^{en}) urte inguruban katamotz izugarri bat arrapaga-
lluan (zepoan) atzitu zutela Aranzazu mendiyen. Iztueta, arestian esan-
dako jaunak diyo ikusi izan zubala Zaldibi'ko bere jayotetxean, larrua
kendu bañon len bere aragi ta guzi zaldi gañean zerabiltela alderrietako
arzayen artean sari eske; irurogeita emezortzi aztaga (libra) pisatu zi-
tubala, ta beraren ortz agiñak, sudurmintzetako bizar lodi gogorrek,
eta azkazal luze kakotu zorrotzak ikusi ta beste gabe, ezurretarañoko
ikara sartu zekiyokela edozeñi.

Gure aurrekoetatik datorren esana da, gañera, Alzo, Ugarte ta Be-
dayo arteko mendiyetan, Arterreka deritzayon tokiyan, ill ere zubala
katamotz odolzalea baserritar bakar batek, eta saririk batere eman nai
izan etziyola Ekauta'k (Diputaziyoa'k) ain galzori (arrisku) aundiyan
jarri zalako, ta beste iñor jarri etzediñ alabaña.

Alzoarrai entzun diyet, azkenik, eta ben bañon geyagotan ere bai, beren mendi ospatsu Otsabio'n, orain dala eunte bat gutxi gora bera, beste katamotz bat ill zutela eiztari euskaldun ornitu ta azkar batzuben. Nik uste det ordea, ez katamotza, legoinabarra izango zala Otsabio'ko mendian eraildu zuten pizti ura, bereala esango dedanez.

Legoinabarrak ere, ¡zeñek esan! eizatu izandu dirade Gipuzkoa'ko baso illunetan. Ara nun ta noiz eta zenbat. Lizarza'ko mendi Illarrazu'n atzitu zuten bat zunpadaz (tiroz) eiztari gipuzkoarrak anei zazpireun ta irurogeita amazpigarren (1777-^{en}) urtean. Andik laugarren urtera, edota anei zazpireun ta larogeita batgarrenean (1781-^{an}) beste bat atzitu zuten Lizarza'n bertan, Anzarreta deritzayon mendian. Eta irugarrena eizatu zuten andik ogeita emeretzigarren urtera, edota anei zortzireun ta ogeigarrenean (1820-^{an}). Ez da esaten nun eizatu zan irugarren au, ta nere ustetan pizti ori da Alzo'ko mendi Otsabio'n ill zutena. Arrazoi bigatik: bata da, Alzo'ko Otsabio mendia, ta Lizarza'ko esan diraden biyak auzo bezela egiten diradelako; eta bi mendi oyetan legoinabar bana eizatu baziraden ¿gauzak itxura ez du baitaere legoinabarra izango zala Otsabio'n atzitu zana? Beste arrazoya da: iya eun urte dirade, alzoarren esaeran, Otsabio'ko pizti beldurgarriya erail zutela; ta aiñ zuzen ere larogeita amazapi dirade irugarren legoinabarra eizatu zala, ¿izango etzan bada au Otsabio'ko piztiya? Itzegin bezate bestela alzoarrak edota beste edozeñek.

PRADERE'TAR BLAS, *apaiza*.

